

2022ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen behin betiko onespina ematea Errotaberri industria-sektoreko plan partzialeko C.3.1 ordenantzaren aldaketari (partzela industrialen eremuko erabilera-baldintzak).

Behin betiko onespeneko dokumentuaren edukia eta hasieran onartutakoa berdin-berdinak dira (2021eko ekaineko dokumentua, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzitakoa).

Akordioaren testu osoa 2022ko otsailaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (33 zenbakia) argitara eman zen.